



I. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA

Bizkaiko Foru Aldundia

Ahaldun Nagusia

Ahaldun Nagusiaren 169/2023 FORU DEKRETUA, uztailaren 6koa, Bizkaiko Foru Aldundiaren sailak zein haien jardun-eremu eta eginkizunak ezartzen dituen.

Bizkaiko Batzar Nagusiak eraberritu eta Ahaldun Nagusia aukeratu ondoren, agintaldi berri bati hasiera eman zaio foru-erakundeetan, eta horien gobernurako eta eginkizunen eta antolaketaren administrazioarako, Foru Aldundiaren egitura orokorrari buruzko neurriak hartu behar dira.

Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/87 Foru Arauko 37. artikulua arabera, Ahaldun Nagusiari dagokio foru diputatuak izendatzea eta kargutik kentzea eta dagozkien foru-sailak esleitzea.

Gainera, foru-arau horren 14. eta 27. artikuluetan ezarrita dago Ahaldun Nagusiak foru-diputatuen ekintzak zuzendu eta koordinatzen dituela, bai eta Foru Aldundiaren gobernu-ekintza ere.

Ezarritakoa dela bide, Ahaldun Nagusiak Foru Aldundiaren egitura orokorra eta haren jardun-eremuak zehaztu ditzake.

Nolanahi ere, Foru Aldundiak, gero, bestela erabaki dezake, sailtako egitura organikoak onesterakoan, foru-arau bereko 17.1.14 artikuluan ematen zaizkion eskumenak erabiliz eta foru-diputatuek proposatuta, hala ezarrita baitago gure foru-arau instituzionalaren 39 a) artikuluan.

Foru-dekretu honen xedea da Foru Aldundiak egun duen egiturari funtsean eustea, baina beherago ezarritako aldaketekin; izan ere, gaur egungo egoera sozial eta ekonomikoa kontuan harturik aldaketok egokienak direla irizten da.

Horregatik guztiagatik, otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauak ematen dizkidan ahalmek, gorago jasotakoak, direla bide, honako hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. — *Helburua*

Dekretu honen xedea da Bizkaiko Foru Aldundiaren egitura osatzen duten sailak eta haien jardun-eremu eta eginkizunak ezartzea, zuzendaritza nagusitan antolatuta.

2. artikulua. — *Bizkaiko Foru Aldundiaren egitura*

Bizkaiko Foru Aldundiak sail hauek ditu:

- Ekonomia Sustatzeko Saila.
- Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila.
- Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saila.
- Ogasun eta Finantza Saila.
- Gizarte Ekintza Saila.
- Euskara, Kultura eta Kirol Saila.
- Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saila.
- Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko Saila.
- Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Saila.

**3. artikulua. — Ahaldun Nagusiaren Kabinetea**

1. Ahaldun Nagusiaren Kabinetea Ahaldun Nagusiari laguntza eta aholkua emateko organoa da, eta haren menpe dago zuzen-zuzenean.

Komunikaziorako Zuzendaritza Nagusia Ahaldun Nagusiaren Kabineteko buruaren menpe dago.

2. Koordinaziorako eta Estrategia Digitalerako Zuzendaritza Nagusia sortzen da, eta Ahaldun Nagusiaren menpe egongo da zuzenean.

Kabineteko Zerbitzu Zentralen Zerbitzua Koordinaziorako eta Estrategia Digitalerako Zuzendaritza Nagusiari atxikitzen zaio, baina Diputatu Nagusiaren Kabineteari ere euskarria emango dio.

Lehenengo Estrategia Digital eta Korporatiboaren Kabineteko Atal Ekonomiko Administrazio Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailaren Zerbitzu Korporatiboaren Zuzendaritza Nagusian sartuko da.

Foralen Atala Koordinaziorako eta Estrategia Digitalerako Zuzendaritza Nagusian sartu da.

4. artikulua. — Ekonomia Sustatzeko Saila

1. Ekonomia Sustatzeko Sailari eginkizun eta jardun-eremu hauek dagozkie:

- a) Ekintzailatza, Talentua eta Enpresen Lehiakortasuna Bultzatzeko Zuzendaritza Nagusia.
- b) Lurralde Lehiakortasunerako eta Kanpo Sustapenerako Zuzendaritza Nagusia.

2. BEAZ, S.A., Bitarteko Propioa, Seed Capital Bizkaia SA eta Crowdfunding Bizkaia PFP SL. atxikitzen zaizkie Ekonomia Sustatzeko Sailari.

5. artikulua. — Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila

1. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailari eginkizun eta jardun-eremu hauek dagozkie:

- a) Enplegua Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia.
- b) Gizarte Inklusioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia.
- c) Gizarte Kohesioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia.

Zuzendaritza horrek Lankidetzarako eta Dibertsitatearako Zuzendaritza Nagusiak zituen eginkizunak izango ditu, bai eta Bizkaiko Foru Aldundiak gazteriaren arloan dituen eskumenak ere.

- d) Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia.

2. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailari atxikitzen zaio Seed Capital Bizkaia Mikro SA sozietate anonimoa.

6. artikulua. — Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saila

1. Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailari eginkizun eta jardun-eremu hauek dagozkie:

- a) Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusia.
- b) Udal Harremanen Zuzendaritza Nagusia.
- c) Larrialdien Zuzendaritza Nagusia.
- d) Zerbitzu Korporatiboaren Zuzendaritza Nagusia.
- e) Gobernamentu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritza Nagusia.

Zuzendaritza horretan sartuko dira lehenengo Estrategia Digital eta Korporatiboaren Kabineteko Gobernamentu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritza Nagusia eta Digitalizazioaren eta Herritarrenganako Laguntzaren Zuzendaritza Nagusia.



2. Lantik, S.A., Bitarteko Propioa eta Zugastel SA Bitarteko Propioa merkataritzako foru-sozietateak eta Biscaytik Fundazioa atxikitzen zaizkio Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailari.

7. artikulua. — Ogasun eta Finantza Saila

1. Ogasun eta Finantza Sailari eginkizun eta jardun-eremu hauek dagozkio:

- a) Ogasuneko Zuzendaritza Nagusia.
- b) Katastroaren eta Zerbitzuen Zuzendaritza Nagusia.
- c) Finantza, Aurrekontu eta Ondarearen Zuzendaritza Nagusia.

Zuzendaritza honek Bizkaia Erakargune Bihurtzeko Zuzendaritza Nagusiaren zerbitzuak izango ditu.

d) Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboa.

2. LAE foru enpresa-erakunde publikoa (Estatuko Loteria eta Apustuen Bizkaiko Erakundea) atxikitzen zaio Ogasun eta Finantza Sailari.

8. artikulua. — Gizarte Ekintza Saila

1. Gizarte Ekintza Sailari eginkizun eta jardun-eremu hauek dagozkio:

- a) Administrazioarako eta Gizarte Sustapenerako Zuzendaritza Nagusia.
- b) Autonomia Pertsonala Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia.

2. Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea erakunde autonomoa (IFAS-GUFE) eta Babes Neurrien Hornidurarako Institutua, Gaikuntza foru-erakunde publiko enpresariala atxikitzen zaizkio Gizarte Ekintza Sailari.

9. artikulua. — Euskara, Kultura eta Kirol Saila

1. Euskara, Kultura eta Kirol Sailari eginkizun eta jardun-eremu hauek dagozkio:

- a) Euskara Zuzendaritza Nagusia.
- b) Kultura Zuzendaritza Nagusia.
- c) Kirolen Zuzendaritza Nagusia.

2. Euskalduna Jauregia SA Bitarteko Propioa merkataritzako foru sozietatea, BizkaikOA foru enpresa-erakunde publikoa, Bizkaia-Bizkaialde Fundazioa, Azkue Fundazioa eta Juan Crisóstomo de Arriaga Orkestra Sinfonikoa atxikitzen zaizkio Euskara, Kultura eta Kirol Sailari.

10. artikulua. — Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saila

1. Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailari eginkizun eta jardun-eremu hauek dagozkio:

- a) Lurralde Garapenerako Zuzendaritza Nagusia.
- b) Berrikuntzarako eta Bideen Kudeaketarako Zuzendaritza Nagusia.

Azpiegituretarako, S.A.U., Bitarteko Propioa, Interbiak SA Bitarteko Propioa eta Sestao Bai, S.A., merkataritzako foru-sozietateak atxikitzen zaizkio Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailari.

11. artikulua. — Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko Saila

1. Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko Sailari eginkizun eta jardun-eremu hauek dagozkio:

- a) Garraioen Zuzendaritza Nagusia.
- b) Mugikortasuna Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia.
- c) Turismoa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia.

2. Aparkabisa, S.A., merkataritzako foru-sozietatea atxikitzen zaio Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko Sailari.

**12. artikulua.— Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Saila**

1. Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailari eginkizun eta jardun-eremu hauek dagozkie:

- a) Nekazaritza Zuzendaritza Nagusia.
- b) Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia.

2. Basalan, S.A., Bitarteko Propioa eta Garbiker SA Bitarteko Propioa merkatari-tzako foru-sozietateak atxikitzen zaizkie Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailari.

13. artikulua.— Sailaren aurrekontu- eta kodetze-eragiketak

1. Ogasun eta Finantza Sailari dagokio foru-dekretu honetan ezarritakoa betetzeko behar diren aurrekontu-eragiketak egitea.

2. Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailari dagokio sail berrien kodetzea, sailkapen organikoa eta ekonomikoa egokitzea, ahal den neurrian orain artekoak errespetatuta.

3. Bizkaiko Foru Aldundiak onetsiko du baliabide ekonomikoen eta eginkizunak birbanatu zaizkien administrazio-unitateei atxikitako foru-langileen berresleipena.

Xedapen Gehigarri Bakarra.— Baliozkotzea

Foru-dekretu hau Foru Aldundiak baliozkotu behar du.

Xedapen Iragankor Bakarra.— Egitura organikoak egokitzeko epea

1. Sailen eta Ahaldun Nagusiaren Kabinetearen egitura organikoa zehazteko foru-dekretuak onetsi artean, egungo zuzendaritza, zuzendariordetza, zerbitzu eta atalen eginkizunak mantenduko dira, bien bitartean egiten diren izendapenak eta kargutik kentzeak gorabehera.

2. Sailen egitura organikoari buruzko foru-dekretuen eta kabineteen erregelamen-duen aldaketa partzialak edo berrikuspen osoak onetsi behar badira dekretu honi egokitzeko, 2024ko maiatzaren 1a baino lehen onartu beharko dira.

Xedapen Indargabetzaile Bakarra.— Aurreko jardun-eremuei buruzko dekretuen indargabetzea

Dekretu hauek indargabetuta geratzen dira:

- Ahaldun nagusiaren 101/2019 Foru Dekretua, uztailaren 1ekoa, Bizkaiko Foru Aldundiaren Sailak zein haien jardun-eremu eta eginkizunak ezartzen dituen.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren 128/2019 Foru Dekretua, irailaren 3koa. Honen bidez, aldatu egiten da uztailaren 1eko 101/2019 Foru Dekretua, Bizkaiko Foru Aldundiaren sailak zein haien jardun-eremu eta eginkizunak ezartzen dituen.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren 39/2021 Foru Dekretua, apirilaren 13koa, uztailaren 1eko 101/2019 Foru Dekretua bigarren aldiz aldatzen duena. Foru-dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren sailak zein haien jardun-eremu eta eginkizunak ezarri ziren.

Indargabetuta geratzen da, era berean, foru-dekretu honen aurkakoa den beste edozein xedapen ere.

Azken Xedapen Bakarra.— Indarrean jartzea

Foru-dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2023ko uztailaren 6an.

Ahaldun Nagusia,
ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA